

H10 Lehen erabilerako lizentzia

Saila	Hirigintza
Zer da / Zertarako da	Lizentzia honen xedea da egiaztatzea obrak lizentzia lortu zuen proiektuan aurreikusitakoaren arabera egin ote diren.
Nork eska dezake?	Edozein pertsonak edo haren legezko ordezkariak.
Aurkeztu beharreko agiriak	<ol style="list-style-type: none">1. Eskatera-idazkia, eskabide orokorrari jarraiki egina.2. Eskatzailearen NANA.3. Obrako zuzendariaren ziurtagiria, behar bezala ikus-onetsia, obra proiektuaren, lizentziako baldintzen eta hirigintzako araudiaren arabera bukatu zela egiaztatzen duena. Proiektuan aldaketaren bat egonez gero, obra-amaierako proiektua jaso beharko da. Ale bat aurkeztuko da paperean eta beste bat CDan.4. Eraikin berrietarako edo erabilera berrietarako bada, aurrekoetz gain ondoko agiri hauek:<ol style="list-style-type: none">1. Obra berriaren adierazpena.2. Eraikuntzaren kanpoaldeko argazkiak.3. Ur, elektrizitate, gas eta telefoniako konpainia hornitzaileek hartuneak eta sareak onartzen dituztela egiaztatzen duten agirien kopiak.4. Jabetzaren erregistroko inskripzioa.5. U4 inprimakia behar bezala beteta.
Non eskatzen da?	Udaletxeko sarrera erregistro orokorrean (San Bartolome 2, astelehenetik ostiralera, 09:00etik 14:00era). OHARRA: Aurrez aurre teknikariarekin bildu nahi ez gero ordutegia astelehenetik ostiralera, 09:00etik 14:30era. Hitz ordua duen herritarrari emango zaio lehentasuna. Hitz ordua eskatzeko telefono bidez: 943 697320 edo hirigintza@ibarra.eus
Zenbat kostatzen da?	Lehen erabielra baimenaren zerga: 15% ICIO Tasa etxebizitza lehen erabilera 61,10 euro.
Prozeduraren epea	-Zenbatetsitako epea: hilabete. - Legezko gehieneko epea: hiru hilabete. - Administrazioaren isiltasunaren ondorioak: ezestea.
Araudi aplikagarria	-Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 207. artikulua eta hurrengoak (EHAA, 138. zk., 2006/07/20). - Indarrean dagoen udal plangintza.

Eskaera jaso ondoren jarraitu beharreko prozedura	<ol style="list-style-type: none"> 1. Eskabide-orria eta agiriak jasotzea, eskaneatzea, egiaztatzea eta erregistratzea. 2. Eskatzaileari kopia zigilatu bat ematea, ziurtagiri gisa. 3. Hirigintza Sailari bidaltzea.
Geroagoko izapideen laburpena	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikuskatzea eta udalaren txosten teknikoa egitea. Txostenak barne hartuko du egindako obraren balioespena. 2. Organo eskudunak ebazpena ematea. 3. Kontu-hartzailera Sailari bidaltzea, likidazioa egiteko. 4. Interesdunari jakinaraztea.
Agiri lagungarriak	HIRIGINTZAKO ESKAERA ORRIA
Nork onartu behar du?	Alkatetzako dekretua